

comisiones obreras de euskadi
euskadiko langile komisioak
secretaría general
Idazkaritza nagusia



Enpleguaren aldeko eta Krisiaren aurkako Euskal Ekimena



AURKIBIDEA

- 1. Sarrera 3 orr.**

- 2. Arazo nagusiak 6 orr.**
 - a. Enplegua**
 - b. Negoziacio Kolektiboa**
 - c. Zergan gaiak**
 - d. Prezioak, etxebizitza eta lantokira joateko mugikortasuna**

- 3. CCOO Euskadiren proposamenak:
Justifikazioa / proposamena /
inplikatutako eragileak 11 orr.**
 - a. Enplegua**
 - b. Negoziacio Kolektiboa**
 - c. Zerga gaiak**
 - d. Prezioak, etxebizitza eta lantokira joateko mugikortasuna**

1. Sarrera

Ongi dakigu krisi global baten erdian gaudela. Ekonomi krisia da, baina baita ere instituzioena eta gobernu politikoena. Nazioz gaindiko esparruetan sortu zen, gehiegizko zorpetzeak eta finantzazio ekonomikoaren inplosioak eraginda.

Ezin jakin daiteke zenbat iraungo duten zaitasun hauek, baina argi dago ziurgabetasunez eta arriskuz jositako eta hazkunde oso moteleko ibilbide luzea dugula oraindik egiteko.

Bistan denez, krisiaren borroka-gune handienak nazioz gaindiko esparruetan daude, baina ondorioak argi eta bortizki jasaten ditugu toki guzietan. Hori dela eta, esparru lokalean hasi behar dugu gure arazo larriei aurre egiteko aukera guztiak esploratzten.

Marko hurbiletan aukera ugari daude krisiaren eraginen aurkako neurriak hartzen. Euskadin bizi gara, hau da, Euskadiko lehiakortasun mailekin, politikekin, sindikatuekin eta enpresekin. Zerga-autonomia handia dugu eta baita ere lan harreman sistema bat bide luzea egin duena negoziazio kolektiboan eta emplegu politika aktiboetan. Erakunde-sare konplexu bat dugu, Eusko Jaurlaritza, Foru Aldundiak eta tokiko erakundeak barne hartzen dituena.

Gure produkzio sareak nazioartekotze maila handia du, oinarri industrial garrantzitsua dugu BPGaren ia %30 hartzen baitu, ekonomia gero eta terziarioagoa dugu eta gure enpresen batez besteko tamaina txikia da.

Azken urteotan hazkunde moteldu egin da, nola Euskadin hala inguruko eskualdeetan. Europa erdiko herrialdeekiko dugun harremana dela eta, haien eboluzio ekonomikoaren menpe gaude ia erabat. Krisi aro honetan, kanpo-sektorea izan da bilakaera onena izan duena.

Baina Alemaniako ekonomia moteltzen hasten bada, kanpo sektoreak ere ondorio txarrak jasan ditzake. Hain zuzen ere Greziako zorrak eragindakoak, aurreikuspen guztien arabera ezingo baitu bere zorra ordaindu eta, jakina, horrek eragina izango du Alemaniako finantza erakundeetan eta bere birkapitalizazioan eta ondorioz baita ere hango kreditu politikan, euskal esportazioetaraino iritsiko delarik eragin hori. Bestalde, ardatz franko-alemanak bultzatutako doikuntza eta bateratze fiskaleko politikek moteldu egin dituzte Alemaniaren esportazioak jasotzen dituzten beste ekonomia batzuk. Paradoxikoa badirudi ere, bumeran efektu horrek eragina izango du Europa erdialdeko herrialdeen hazkundean eta importazioetan, eta beraz baita ere euskal enpresen egoeran eta hazkunde zein emplegu mailetan.

Estatuko gainerako eskualdeen eskaera-maila ere txikiagoa da, krisiak beste herrialde batzuk baino gogorrago astindu baitu Espainia. Beraz, barne eskaeraren bilakaera ere txarra da eta kontuan hartu behar da administrazio

publikoak gastua murrizteko ahaleginetan dabiltzala, datozen urteetako aurrekontu publikoetan eragina izango duen defizit publikoa geldiarazteko.

Pultsu eta bultzada falta

Euskal gizarteak nabari du zaitasun ekonomikoko une hauetan nagusi diren ziurgabetasuna eta etsipena. Pultsu eta bultzada falta sumatzen du politika publikoetan, eta horrek zalantzan jartzen du erakunde demokratikoek ba ote duten behar adinako gaitasunik aurrean dauzkagun arazoei aurre egiteko. Sindikatu arteko gatazkak ere indartu egiten du sentipen hori, askotan uste baita herriarrentzat garrantzitsuenak diren kontuak sarri ez datoza bat antolakunde sozialen lehentasunekin, kasu honetan langileak ordezkatzen dituzten erakundeenekin.

Beraz, neurri orekatuak proposatu eta hartu behar dira defizit publikoari eusteko, horrekin inbertsio publikoa murritz gabe noski, halakorik gertatuko balitz suspetze ekonomikoa are gehiago atzeratuko litzatekeelako. Funtsezkoa da, behintzat neurri bateraino, premia sozialak publikoki estaltzea. EAEko gizarta kohesionatu behar dugu, arreta berezia eskainiz arazo eta egoera sozial delikatuenei: menpekotasuna, osasuna edota 0 eta 3 urte bitarteko hezkuntza sarea adibidez. Era berean, etorkizuneko euskal gizarta kualifikatzeko funtsezkoak diren elementu zentralak (esaterako hezkuntza publikoa) bermatu behar dira. Hori dena ordea ez da posible izango diru-sarrera politikak behar bezala landu gabe.

Oreka bilatu beharko da merkatu globalean baldintza onetan lehiatuko den sektore esportatzailea mantentzearen eta Euskadiko barne eskaeraren bilakaera hobetzearen artean. Horretarako hainbat gai jorratu behar dira: soldatak, irabaziak, gastua eta diru-sarrerak, politika fiskala, prezioak...

Eta eragile ugari daude implikatuta aldagai horien inguruko erabakietan. Eragile sozialak, ekonomikoak eta politikoak. Hainbat erakunde ditugu EAEko bezalako mapa konplexu batean non, salbuespenak salbuespen, osasuna edo hezkuntza bezalako gaien eskumenak dauzkaten erakundeek (Eusko Jaurlaritzak eta Legebiltzarra) ez baitaukate gaitasunik diru-sarreren gainean ezer erabakitzeko. Zalantzarik gabe, egoera horrek asko zaitzen du akordio globalak proposatzea.

Diagnistikoa eta proposamena

CCOO Euskadik jakin nahi du zeintzuk diren alderdi sozio-ekonomiko eta laboralean dauzkagun arazo nagusiak, gure eskumenekin eta eragileekin aztertzeko (politikoak, ekonomikoak zein sozialak), eragile horiei guztiei ekintza proposamenak egiteko eta, azkenik, sindikatu gisa dauzkagun konpromisoak aurreratzeko.

Hori dena nagusiki lan arlora mugatu nahi dugu, enpresari eta langileak ordezkatzen dituzten erakundeen eskumenaren baitan. Langabezia gora doan une honetan, enplegu politikak landu behar dira. Aldi berean, negoziazio

kolektiboari berrekin behar zaio, hitzarmen kolektiboak funtsezko elementua izango direlarik enpresa eta langileen artean errentak esleitzeko.

Aurrekoarekin loturik, arlo fiskalerako ere hainbat proposamen aurkeztu nahi ditugu, krisiari aurre egingo dioten politika publiko sendoak bideratzeko. Eta, azkenik, uste dugu neurriak hartu behar direla langileen erabilgarriaren inguruan, uste baitugu positiboak direla eragile ekonomiko guztiaren (enpresetan zein familietan) gehiegizko zorpetze pribatua dugun une honetan.

Ongi dakigu ur handitan sartzen ari garela. Interes gatazkak daude ekonomi eta lan harremanetan, baita ere kontsumoaren, aurrezkiaren eta inbertsioaren artean zerga politikak finkatzean, sektore publikoaren eta ekimen pribatuaren artean eta erakunde batzuen eta besteen eskumenen artean.

Baina sindikatu gisa duen kontratatzeko gaitasuna erabiliz, CCOO Euskadik proposamenak aurkeztu nahi ditu gatazkari irtenbidea emateko, adostasuna bilatu nahi du interes desberdinaren artean eta topaguneak indartu nahi ditu. **Klaseko sindikatu nazional bat gara, langile euskaldunen egoera hobetu nahi dugu, proposamen inklusiboak eginez herrialde mailan.**

Ez da geldik egoteko unea, baizik eta ekimenak martxan jartzekoa eta gauzen norabidea aldatuko duten proposamen anbiziotsuak bilatzekoa. Krisiak mesfidantza suspertzen du, eta mesfidantza horrek krisia bera atzeraelikatzen du, baina aurrera egingo bagenu akordio politiko eta sozialen bidean, mezu baikorra igorriko genioke euskal gizarteari.

Bultzada hori gizartera eramateak implikatutako aktoreak legitimatu ditzake. Inertia derrotistak hautsi behar dira, aldarrikatu behar da posible dela gauzak egitea edo neurriak hartzea (ez baita gauza bera egitea eta ez egitea), eta gizarteak ikusiko du krisiaren ondorio fatalistak baldintzatu daitezkeela ekintza publikoarekin, politikarekin, ekintza sindikalarekin eta ekintza sozialarekin.

Arazo, proposamen, eragile eta konpromisoak ikuspegi horietatik aztertz
proposatu nahi dugu **Enpleguaren aldeko eta Krisiaren aurkako Euskal Ekimena (IVEC)**, zeinak plano eta interes desberdinak kontuan hartuta neurri partekatuak bilatuko baititu ondorio mingarriak dituen amaiera zehatzik gabeko egoera zail honi aurre egiteko.

2. Arazo nagusiak

a. Enplegua:

- Sarri esaten da Euskadiko langabezia tasek Estatuko tasekin baino antzekotasun handiagoa dutela Europa erdialdeko herrialdekoekin. Hala eta guztiz ere, datuak beren testuinguruan eman behar genituzke eta aipatu gure langabezia tasa ingurukoak baino baxuagoa den arren, EAEko jarduera tasa ere oso baxua dela. Beraz, egia da inguruko gizarteeik baino langabezia tasa baxuagoa daukagula, baina portzentualki lan egin dezakeen jende kopurua ere txikiagoa da.
 - Euskadiko jarduera tasa jaisten joan da pixkanaka. Egia da krisian gaudenetik apur bat hazi dela langabeziaren hazkundearen ondorioz. Halere, %58,10ekoa da, Estatuko baino bi puntu portzentual baxuagoa.
 - 2008aren erdialdetik okupazio maila ere nabarmen jaitsi da. 2010eko okupazio tasa %50,8koa izan zen (Estatuko %48a baino handiagoa).
 - 16 eta 64 urte bitarteko biztanleen enplegu tasa Europak 2010erako ezarritako helburua (%70) baino bost puntu baxuagoa da EAEn, eta jomuga horretatik gero eta urrunago dago gainera.
- Gure iritziz, krisiak dirauen urte hauetan langabezia tasak izan duen hazkunde kezkagarria da arazorik garrantzitsuena.
 - 2011ko abuztuan 140.729 langabetu erregistratu ziren, nahiz eta Eustateko datuen arabera 114.900 izan ziren eta INERen arabera berriz 122.400.
 - INEko datuek diotenez, emakumeen langabezia tasa %12,53koa da eta gizonezkoena %10,84koa.
 - Gure erkidegoko gazteen langabezia tasa %25 ingurukoa da, konsultatutako iturriaren arabera (Eustatek dioenez 2011ko 2. seihibekoan %23,7koa zen).
- Beraz, EAEko langabezia tasak handiak dira eta sozialki zein ekonomikoki garrantzitsuak diren bi kolektibo dira kaltetuenak.
 - Batetik, gazteak dauzkagu. Sekula baino baliabide gehiagorekin prestatu ditugun langile gazte hauen jakintza guztia desaprobetxatzen ari gara, eta gainera ez dute aukerarik hiritar oso bihurtzeko.

- Bestetik, hor ditugu iraupen luzeko langabetuak, batez ere adin batetik aurrerakoak. Behin lanaren zirkuitutik ateratzen direnean, arazo larriak izaten dituzte berriro lan munduan sartzeko.
- Aurreikuspenen arabera, datozen hiruhilekoetan hazkundeak moteltzen jarraituko du, beraz, langabezia goranzko joerarekin egonkortuko da eta 2012an %11tik gora igo liteke.

b. Negoziazio kolektiboa

- **Negoziazio kolektiboaren blokeoa. Berritu gabeko hitzarmen kolektiboak.**
 - 123 hitzarmen sektorial probintzialetatik 92 daude berritu gabe eta horrek 226.097 langileri eragiten die. EAEen negoziatzen diren hitzarmen sektorialetatik 29 bakarrik daude indarrean (10 Araban, 11 Bizkaian, 8 Gipuzkoan eta lurralde arteko 1) eta hitzarmen horiek 156.666 langile babesten dituzte, guztira 382.763 badira ere.
 - Langileak soldaten zati bat galtzen ari dira hitzarmen kolektiboak blokeatuta daudelako.

Urteko soldata *batez bestekoa 26.000 eurokoa litzateke	KPlaren hazkundeagatiko soldata galera - 2010	KPlaren hazkundeagatiko soldata galera - 2010-2009	KPlaren hazkundeagatiko soldata galera - 2010-2009-2008
26.000	780 euro	1.242 euro	1.352 euro
20.000	660	860	1.040
30.000	990	1.440	1.560

Batez besteko soldata gordina (26.000 euro) duen Euskadiko langile batek berritu gabe badu bere hitzarmena 2008tik, langile horrek urteko 1.352 euroko galera jasan du 2011ko urtarilean. Egoera horretan dauden 100.000 langileko, soldaten galera 130 milioi eurokoa da (21 mila eta seiehun milioi pezeta baino gehiago) eta diru hori enpresako soberakin gisa mantentzen da soldaten bihurtu beharrean.

- **Hitzarmen kolektiboko esparru desberdinen arteko lehentasun harremana aldatzen duen negoziazio kolektiboaren erreforma.**
 - Hemendik aurrera, hitzarmen kolektibo probintzialekin batera Estatuko bat edo autonomiko bat badago, lehenengoek lehentasuna galduko dute.
 - Kontrako itunik ez badago, enpresako hitzarmen kolektiboek beste esparru batzuetako hitzarmenetan adostutakoa aldatu ahal izango dute, soldatari edo esaterako lanaldiaren banaketari dagokionean. Aipatu kontrako itun posible hori Estatuko zein Autonomi Erkidegoko hitzarmen edo akordioan ezarri beharko da.
 - Euskal Autonomi Erkidegoan hitzarmen kolektiboa duten langileen %79 Euskadin egiten den negoziazio kolektiboaren babesean daude. Horietatik %80 probintzia mailako hitzarmen sektorialen menpe daude. Une honetan 92.459 langile daude EAEn Estatu mailako 109 hitzarmen sektorialen menpe.

c. Zerga gaiak

- **Bilketaren gainbehera**

Urtea	2010	2009	2008	2007	2006
BPG prezio arruntak	65.419,2	64.225,6	67.924,4	66.354,0	61.763,8
Zerga bilketa	11.700,0	10.792,0	12.834,1	13.772,1	12.552,3
Presio fiskala	%17,8	%16,7	%18,8	%20,8	%20,3

- Urte batetik besterako aldaketa txikiez haratago, aurreikuspen guztien arabera, Euskadin hitzartutako zerga-bilketa ez da luzaroan itzuliko krisiaren aurreko mailetara, baldin eta ez bada zerga egitura aldatzen presio fiskal handiagoa eragiteko.
- Esan liteke euskal erakundeek duten defizit publikoa, aktibatzen ez den presio fiskalaren marjina horren ondoriozkoa dela batez ere.
- Zerbitzu publiko garrantzitsu batzuek aurrekontu handiagoak beharko dituzte zerbitzuaren kalitatea mantendu ahal izateko. Hainbat faktorek eragingo dute premia hori, besteak beste, biztanleriaren adina zahartzeak (osasunean eta zerbitzu sozialeran du eragina) eta hezkuntza arautuko ikasle kopuruaren hazkundeak.

- Bestalde, baliabide publikoen ia erabat menpe daude pertsonentzako zerbitzu asko (esaterako etxerako laguntza), esku-hartze sozialeko sektoreak eta oro har hirugarren sektorearen barnean sartzen den guztia. Baliabide horiek murrizteak gero eta eragin handiagoa izango du zerbitzuen prestazio mailan eta kalitateean ere bai. Horrekin batera, gutxitu egingo da azken urteotan nabarmen hazi den enplegua.
- Bestalde, kontuan hartu behar da gure erakundeen egitura berezia, Euskal Administrazio Autonomoak (Jaurlaritzak eta Legebiltzarra) ia ez baitauka gaitasunik sarrera politiketan eragina izateko, ez bada ez-ohiko zamatze edo harmonizazio fiskaleko neurriak hartuz. Mundu garatuan seguruenik ez da egongo horrelako adibiderik eta horrek asko zailtzen du itun global bat planteatzeko aukera.
- EAEko defizitaren eta zorpetze publikoaren mailak eta zor biziaren maila baxuak (%7,4 ingurukoa) marjina zabala utziko lukete zikloaren aurkako politika egiteko, zorra jaulkiz edo defizita handituz, baina Espainiako Gobernuak eta Europako erakundeek arlo horretan bultzatu dituzten mugak direla eta, badirudi zerga politikak izango direla diru-sarrera publikoak hobetzeko modu bakarra.

d. Prezioak, etxebizitza eta lantokira joateko mugikortasuna

Atonia ekonomikoko urte hauetan, prezioak gehiegi garestitu dira. Oinarritzko produktuen erosketa saskiaren prezioa %5,7 hazi da krisiak jo gaituen hiru urteetan eta hazkunde ekonomikoa berriz negatiboa da, 2009. urtean Euskadiko BPGak gainbehera handia jasan baitzuen.

Euskadi	2008	2009	2010
BPG	+%1,3	-%3,8	+%0,3
KPI	+%1,9	+%1	+%2,8

Familia asko (bereziki gazteak) zorpetu dira etxebizitzak garestitu egin direlako eta hartu dituzten hipotekak ere handiagoak direlako. Hala, errenta erabilgarria eta beraz kontsumoa murriztu egin dira.

Etxebizitza eskuratzeko zailtasunak

Etxebizitzen prezioak jaitsi diren arren, oraindik ia ezinezkoa da etxebizitza bat erostea eta horrek zaildu edo eragotzi egiten die biztanle askori oinarritzko ondasun hori edukitzea.

Frogatuta dago jabetzaren kulturak bere mugapenak dituela. Finantza erakundeek ez dute zuhur jokatu berme hipotekariodun kredituak ematean,

horixe baita jabetzako etxebizitzaren prezioa puztu duena. Euskadira ez dira iritsi Estatuko beste toki batuetan edo Europaren arlo horretan eman diren dinamika exajeratuak, baina argi izan behar dugu hemen ere gainbaloratu egin direla tasazioak estaldura baldintzak bete ahal izateko; etxebizitzaren balioaren %80koak baino kreditu handiagoak eman dira eta ez da kontuan hartu amortizazio kuotak onuradunaren errentaren %30 baino txikiagoa izan behar duela.

Praktika horien ondorioz etxebizitzaren prezioa asko igo da eta familiak gehiegi zorpetu dira. Hala, beren diru-sarreren zati handi bat erabili behar dute hileroko kuotak ordaintzeko, horrek beren errenta erabilgarria murrizten du eta aldi berean kontsumoari eta eskari agregatuari eragiten die.

Joera aldaketa

Langile askok gehiegi erabiltzen dute ibilgailu partikularra lanpostura joateko. Ongizate kolektiboa galdu dugu, garraio sistema iraunkorragoak baztertu eta auto pribatua eskala handian erabiltzeagatik, eta inpaktu handia eragin dugu ingurumenean (isuri lokalak eta globalak, zarata), gizartean (istripuak eta bazterkeria) eta ekonomian (lehiakortasuna galtzea eta kostuak), eta jakina, hori kaltegarri da hiritar guztientzat.

Guztioan lana da hori aldatzea, baina aldaketa hori administrazioek sustatu behar dute, batez ere udalek: garraio publikoa, bizikleta eta oinezko joantoriak lehenetsiko dituen hiria diseinatu behar da eta sentsibilizazio eta informazio lana egin ibilgailu pribatua eraginkortasunez erabiltzeko premiari buruz, inplikatutako eragutien parte-hartzearekin.

Neurriak hartu beharko dira bizitzaren kostuak behartsuenen gainean duen presioa arintzeko. Garraioaren ereduak eta prezioak, etxebizitzaren politikak edota udalen finantzaketa hobea landu behar dira tasak murrizteko. Politika fiskalak ezin du oinarritu higiezinen burbuilan funtzionatu zuten bilketa nitxoetan.

Badakigu planteatu ditugun gaiak oso konplexuak direla. Proposamen batzuk egin nahi ditugu, Euskadiko egungo Elkarrizketa Sozialaren perimetroarekin oso bateragarriak ez diren arren, osagarri paregabeari izan daitezkenak enplegu, soldata, irabazi eta fiskalitate arloetan planteatzetan ditugun neurri guztientzat.

3. CCOO Euskadiren proposamenak

a. ENPLEGUA (Justifikazioa, proposamena, inplikatutako eragileak).

- Jarduera ekonomikoak motel dirauen bitartean zaila izango da enplegua sortzea. Euskadin langabezia tasak hazten jarrai dezake datozen hilabete edo urteetan.
- Ongi dakigu perspektiba ekonomikoak eta eskaera hobetzen ez badira, langabezia ez dela egun batetik bestera murriztuko. Nolanahi ere, ekimen publikoak paper garrantzitsua izan dezake enpleguaren sustagarri eta pizgarri gisa.
- Enplegu Politika Aktiboen gaineko eskumenak LANBIDERenak dira. Gainera, hainbat ekintza garatzen ari dira beste esparru batzuetan ere. Komenigarria litzateke erakunde arteko koordinazioa lantzea sinergiak eta baliabideak aprobetatzeko eta enplegu politikei koherentzia emateko.
- Asmo kolaboratzaile horren ildotik, enpresariak eta langileak ordezkatzen ditugun erakundeok ere badugu zeresana neurri horiek zehazterakoan.
- Langabezia egoera guztiak dira dramatikoak, baina badaude garrantzi berezia eman beharreko bi kolektibo. Gazteena, prestakuntza onena jaso duten belaunaldi hauek guzti sozializatu gabe baitaude langabezia tasen ondorioz. Eta iraupen luzeko langabezia, drama sozial sostengaezina baita gizarte aurreratu batean.

Neurri zehatzak:

- Kualifikazio maila ertain-altua duten langile gazteentzat: enpresan bertan egiten diren prestakuntza programak, kontratatzeko konpromisoarekin. Kontratuaren gutxieneko iraupena diru-laguntzaren araberakoa izango da (erreferentzia 18 hilabete).
- Goi-mailako kualifikazioa duten langile gazteentzat: prestakuntza programa espezializatuak, enpresetan estali gabe dauden eremuetan lan egiteko edo etorkizun hurbilean bete beharko diren lanpostuetarako.
- Prestakuntza dualeko ereduak sustatzea. *Ikasi eta Lan* programa. Alternantzia formatuan egiten den prestakuntza eredu bat da, non enpresa bateko lan kontratazioa eta hezkuntza edo prestakuntza zentro bateko prestakuntza konbinatzen baitira zikloak, moduluak edo profesionaltasun ziurtagiriak eskuratzeko. Prestakuntza espezializatua

izaten da eta lanpostuan bertan egiten dena, baina lan-loturaduna, gazteak Gizarte Segurantzaren kotizatzen has daitezen.

- Hobari mugatuak 50 urte baino gehiago dituzten iraupen luzeko langabetuentzat.
- Gaitasunak aitortzeko sistema ezartzea lehenbailehen.
- Administrazio Publikoaren arloan: Euskal Administrazioak kudeatzen dituen zerbitzu publikoen mantentzea eta bere kasuan zabaltzea bi helburuekin, herritarren eskubidea bermatu eta enplegu publikoa mantentzea. Gaurko zerbitzu publikoak mantendu, dependentziarekiko arreta hobetu eta 0 eta 3 urte bitarteko hezkuntza publikoko sarea zabaltzea planteatzen da zehazki.

Implikatutako eragileak

Sindikatuak Enpresak LANBIDE Eusko Jaurlaritza Enplegu politikak garatzen dituzten beste administrazio batzuk

b. NEGOZIAZIO KOLEKTIBOA (Justifikazioa, proposamena, implikatutako eragileak)

- Euskadiko langile eta empresa gehienek ez dituzte berritu beren lan baldintzak arautzen dituzten hitzarmen kolektiboak.
- Euskal langile eta empresa gehienek hitzarmen kolektibo probintzialak dauzkate. Enpresako hitzarmenak eta Estatu mailakoak ere baditzte, baina neurri txikiagoan. Erkidego mailakoak oso urriak dira.
- Azkenaldian, Estatu mailan bultzatutako negoziazio kolektiboaren erreforma zabaldu da.
- Zalantzarik gabe, LERen (Langileen Estatutuaren) 84. artikulua aldatu izanak berekin dakin ondorio nagusia da zenbait gaitan enpresako hitzarmenari lehentasuna ematen zaiola sektoreko hitzarmenaren kaltetan, edozein dela ere enpresaren esparrua. Hona hemen gai horietako batzuk:
 - Soldataren eta soldatza osagarrien zenbatekoak. LEko 84.2 artikuluaren erregulazio berriak dioenez, enpresako hitzarmen

kolektiboak ezarritako soldata sektoreko hitzarmen kolektiboan finkatutakoa baino baxuagoa izan daiteke.

- Ordu estrengatiko ordainsaria edo konpentsaziona eta txandakako lanarengatiko ordainsari espezifikoa ere sektoreko hitzarmenean ezarritakoak baino baxuagoak izan daitezke.
- Enpresako hitzarmen kolektiboak ezin du ezarri sektoreko hitzarmen kolektiboan finkatutakoa baino lan jardunaldi luzeagorik eta ezin du finkatutako opor egun kopurua murriztu. Baino beste era batera erregulatu ditzake ordutegia, laneko denboraren banaketa, txandakako lan erregimena eta oporen urteroko planifikazioa.
- Hala, aipatutako gai horietan enpresako hitzarmena aplikatuko da sektorekoaren gainetik, salbu eta akordio bidez edo Estatuko nahiz erkidegoko hitzarmen sektorialen bidez beste arau batzuk finkatzen badira negoziazio kolektiboaren egiturari edo hitzarmenen arteko konkurrentziari buruz. Halakoetan, akordioek edo Estatuko nahiz erkidegoko hitzarmen sektorialek lehen mailako paper erabakigarria dute enpresako hitzarmena edo haren zenbait alderdi aplikatu behar diren ala ez erabakitzeko.
- Arau berrieik nagusiki hitzarmen probintziala kaltetuko dute, zeinak ezingo baitu inolako eraginik izan bera baino gorago dagoen hitzarmen sektorialean, ez bada kontrako itun bat negoziatzen lanbide arteko akordio bidez, hitzarmen kolektibo bidez edo Estatuko zein erkidegoko akordio sektorialen bidez.
- Ikusirik nolakoa den egoera ekonomikoa, komenigarria litzateke ziurtasunak indartzea EAEko enpresa sarean eta soldaten mailari eustea, barne eskaera mantendu eta indartzeko eta atzerriko sektoreari ekonomikoki suspertzen laguntzeko.

Neurri zehatzak

- Berritu gabe dauden **hitzarmen kolektiboak egunerautu egin behar dira** arrazoizkoak diren soldatekin. Bestalde, sektore arteko akordio bat lortu behar da akordio sektorialek hitzarmenaren zenbait esparru egituratu ditzaten, enpresako hitzarmenak hitzarmen sektorialen gainetik lortu duen lehentasuna murriztuz zenbait arlotan.
 - Sektore arteko itunak eta negoziazio kolektiboko akordio sektorialek zehaztuko dute negoziazio kolektiboaren egitura sektore bakoitzeko errealitatearen arabera.
 - Esparru autonomikoa izango litzateke egituraren erreferentzia eta berak zehaztuko lituzke maila baxuagoko hitzarmenaren arteko konkurrentzia arauak (probintzialak eta enpresakoak).
 - Baita ere proposatzen dugu akordio horiek balia daitezela gure negoziazio kolektiboa arrazionalizatzeko -bai esparru funtzionalean eta bai eskualdekoan- autonomi erkidegoko hitzarmenak sendotzearen aldeko apustua eginez.
 - Akordio horiek lehentasuna eman beharko diente hitzarmen sektorialei, beren esparru funtzionalean dauden hitzarmen probintzialak barne, honako gai guztietaan:
 - a) *Oinarrizko soldataren eta soldata osagarrien zenbatekoak, baita ere enpresako egoerarekin eta emaitzakin lotuta daudenak.*
 - b) *Ordu estren ordainketa edo konpentsazioa eta txandaka eginiko lanaren ordainsari espezifikoak.*
 - c) *Ordutegia eta lan denboraren banaketa, txandakako lan erregimena eta urteko oporren plangintza.*
 - d) *Enpresari egokitzea langileen sailkapen profesionala egiteko sistema.*
 - e) *Lege honek enpresako hitzarmenei egozten dizkien kontratazio modalitateen alderdiak egokitzea.*
 - f) *Laneko bizitza, familiako bizitza eta bizitza pertsonala bateratzeko neurriak.*
- Enpresetako kostuen bilakaerari dagokionez, **konpromiso bat** hartu nahi dugu **erosketa indarra mantentzeko** (soldatetan aplikatu daitezkeen formula desberdinaren bidez) **2011 eta 2012. urteetan**, soldata igoerak planteatuz sektore edo enpresa bakoitzeko errealitatearen arabera.

Implikatutako eragileak

Sindikatuak
Enpresak
LHK

c. ZERGA POLITIKA (Justifikazioa, proposamena, eragile implikatuak)

- Zerga bilketa gero eta txikiagoa denez, herrialdeko kontu publikoek kalteak jasan ditzakete.
- Hortaz, edo gastua murritztu edo gehiago zorpetu behar da, edo bestela, bilketa gaitasuna hobetuko duten neurri alternatiboak hartu behar dira.
- Gastua murrizteak eragin handia izango luke zerbitzu publikoetan, sozialetan eta inbertsioan. Gure iritziz, neurri horiek saihestu beharko lirateke.
- Zorpetzearen baliabidea, bestalde, legitimoa izanik ere garesti aterako zaigu, zor merkatuetako tentsioa handia delako eta, beraz, ez da komeni aukera hori gehiegi erabiltzea.
- Ikusirik zeinen garrantzitsua den ekonomia produktiboa indartzea eta esportatzeko gaitasuna eta barne eskaera suspertza, zerga erreforma selektibo eta progresiboak dira neurri egokienak, lehiakortasuna eta kontsumoa kaltetu gabe.

Neurri zehatzak:

Jakin badakigu arazo teknikoak daudela zerga arloan zenbait neurri hartzeko, baina CCOO Euskadiaren iritziz zerga hitzartuen artean lehentasunezkoak izan behar luketenak planteatu ditugu.

- **PFEZa**

- *Tarte berriak errenta altuenentzat gaur egungo altuenetik (%45) abiatuta eta progresiboki errenta mailaren arabera. Adibidez:*

Zenbateko hauetarainoko errenta	% TASA
62.440,00	%45
90.000,01	%47
120.000,01	%49
500.000,01	%53

- **Aurrezkiaren eta ondare hazkundearen errentetan** (kapital higiezina, etxebizitzen errentamendua, gainbalioak eta kapital higigarria – kontuen eta gordailuen interesak, aseguruak...).
 - **Zergaren izaera sintetikoa berreskuratzea, errenta guztiak oinarri zergagarri beraean integratuz, edo bestela...**
 - ... tarifa berezi bat sortzea aurrezki errententzat **egitura progresiboarekin** (%23ko gutxieneko orokoretik %35era adibidez). Horrelako tarifa batekin progresibotasuna berreskura liteke mota horretako errenten gainean, aurrezkiek eta inbertsioak deslokalizatzeko arriskua saihestuz.
 - Pentsio plan kolektiboei eginiko ekarpenengatiko kenkaria 5.000 eurora mugatzea eta plan indibidualetara eginikoengatiko kenkariak ezabatzea.
- **Sozietateen gaineko Zerga:**
 - Tasa handitzea oreka puntu bat bilatzeko eta oreka horren bidez neurri fiskala bilketa eraginkorren mailarekiko optimizatzeko.
 - Zergaren tasa bateratzea: onuretan zentratu behar da eta ez enpresaren tamainan.
 - PFEZren tasa altuena aplikatzea enpresa jarduerarik ez duten enpresei (sozietate fiktizioei, tartekoei edo helburu produktiborik gabeko sozietate instrumentalei).
 - Sozietateen Gaineko Zergaren kenkari guztiak ezabatu zerga-ordainketa karga-tasa orokorrera gerturatzeko.
- **Ondarearen gaineko Zerga berrezartzea**
- **Ondorengotza eta Emaitzaren gaineko Zerga**
 - Zerga hori berreskuratzea 18.000 euroko oinarri salbuetsiarekin, beste lurralde batzuekiko etena murrizteko.

Inplikatutako eragileak

Foru Aldundiak Eusko Legebiltzarra Eusko Jaurlaritza
--

d. Prezioak, etxebizitza eta lantokira joateko mugikortasuna

Etxebizitza: alokairuaren aldeko apustua

Alokairuaren aldeko apustu anbiziotsu bat proposatzen dugu etxebizitza eskuratzeko mekanismo nagusi gisa eta birgaitze lanak erabili nahi ditugu eraikuntza sektorea dinamizatzeko.

- Alde batetik, behar bezain beste etxebizitza babestu eskaini behar da alokairu erregimenean.
- Bestetik, neurriak harrarazi nahi ditugu alokairuan bizi direnen kaudimena handitzeko, maizter bakoitzaren ezaugarrien araberako hobari publikoen bitartez; orobat, etxea alokairuan jarri nahi dutenen ondarea babesteko neurriak bultzatu beharko lirateke.
 - Onuradun asko izango lituzkeen horrelako formula baten urteko kostua txikiagoa izango litzateke erosketari aplikatutako PFEZaren deskontuaren bidez lortutakoa baino; bide horretatik, gainera, hobeto kontrolatuko lirateke erabilitako baliabideak eta aukera egongo litzakete premia gehien duten pertsonen aldeko diskriminazio positiboa aplikatzeko.
 - Proposatutako formulari esker eraginkortasun gehiagorekin erabiliko lirateke hirietako etxebizitza hutsak eta konponbide egokia izan liteke irteera emateko finantza erakundeen esku dagoen etxebizitza stock-aren zati bat.
- Zerbitzu publiko bat sortu behar da aukera emango duena kredituak berriro negoziatzeko eta bermatuko duena itzulketa epe luzeagoa, hipotekaren exekuzioaren ordez erosketa aukera ematen duen alokairua sustatzea edo hipotekaren luzamendua lehenestea jabeen eta hartzekodunen interesak babesteko, eta saihestu egin behar dira hipoteka exekutatzeko eta egoiliarrak kaleratzeko prozedura judizialak.
- Eusko Jaurlaritzari eta Legebiltzarrari eskatzen diegu Herri Ekimen Legegileaz balia daitezela hipotekak erreformatzeko. Eusko Jaurlaritzaren eskumenekoa ez den arren, euskal erakundeek

konpromiso bat hartu behar lukete hipoteken merkatuaren lege erreforma bat ahalbidetzeko. Lege erreformak sartu behar dira sustatzaile eta hiritarrek hipotekekin zorpetzeko duten gaitasuna mugatzeko, balio/mailegu ratioa handitzeko, ordainean emate deituriko sistema derrigorrezko sistema legal bihurtzeko (neurri horiek ez dute kreditua garestituko, aitzitik etxebizitza merkatuko dute eta higiezinen burbuilak sortzeko arriskua murritzuko dute Espanian) eta hirigintzan aktiboki lan egindo duen banka publikoa bultzatzeko.

Mugikortasun iraunkor eta segurua lantokira joateko

- Enpresek, sindikatuek, administrazioek eta garraio operatzaileek osatutako Mugikortasun Kontseiluak eratzea mugikortasun plan bat egiteko EAEn.
- Garraio bide kolektiboen aldeko apustua egitea lantokira joateko arrazionaltasun irizpideei jarraiki, erabilpena eta eraginkortasuna optimizatzetik eta garraio publikoko sareekiko loturak sortuz.
- Egin beharreko ekintzak egitea oinezkoak segurtasunez eta oztoporik gabe iritsi daitezen beren lantokietara.
- Auto partekatuaren eta erabiltzaile anitzeko autoaren erabilpena sustatzea horretarako sortutako zerbitzuen edo hartutako neurrien bidez, esaterako, aparkaleku-erreserbak.